



PRENTSA OHARRA: 2024.02.20

Sydneyko Biurtekoak Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum-en 'Bandera faltsua' lana aurkeztuko du

- 'Bandera faltsua' instalazioak arteak memoria historikoaren irudimen kolektiboan jokatzeko duen paperari buruzko hausnarketa proposatzen du
- Biurtekoaren komisarioek ZABAL programaren baitan euskal artearen testuingurua ezagutzeko egindako bisitaren emaitza da
- Sydneyko 24. biurtekoa martxoaren 9tik ekainaren 10era egingo 'Ten Thousands Suns' izenburupean

Iratxe Jaio eta Klaas Van Gorkum-en 'Bandera faltsua' lana Sydneyko Biurtekoaren 24. edizioan aurkeztuko da, martxoaren 9tik ekainaren 10era, Etxepare Euskal Institutuaren [ZABAL](#) programaren esparruan egindako lanak ahalbidetuta.

Pasa den urteko apirilean, Etxepare Euskal Institutuak gonbidatuta, Cosmin Costinas eta Inti Guerrero Sydneyko Biurtekoaren zuzendari artistikoek hainbat museo, arte gunea eta artisten estudio bisitatu zituzten euskal testuinguruan murgildu eta praktika artistikoak bertatik bertara ezagutzeko. Egonaldi hartan elkar ezagutu ostean jaso zuten Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumek erakusketan parte hartzeko gonbidapena.

'[Ten Thousands Suns](#)' (Hamar mila eguzki) izenburuarekin, biurtekoaren 24. edizio honek bidegabekeriari aurre egiteko metodo eta alaitasun iturri gisa ospakizuna proposatzen du, kontzeptu bezala; elkarrekin eraikitako eta modu zabalean partekatutako ospakizuna.



Ekitaldiaren erdigunean arte garaikideko erakusketa dago, eta istorio, ahots eta perspektiba ugariz hornitzen da, euren artean lotura duten hari tematikoak esploratzeko. Hala nola, Lehen Nazioen teknologia eta ezagutzen susperraldia, Queer erresilientzia, edota Inauterien nazioarteko adierazpena.

Aurten 50 urte betetzen dituen Sidneyko Biurtekoa arte garaikidearen esparruko ekitaldi garrantzitsua da nazioarteko mailan, eta Australiako handiena. 47 herrialdetako 88 artista eta kolektibok hartuko dute parte, eta hiriko hainbat gunetan barrena egingo da.

‘Bandera faltsua’

2011etik bikote artistikoa osatzen duten Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumek ‘Bandera faltsua’ (2021) instalazioa aurkeztuko dute Sidneyko Biurtekoan.

Lanaren—abiapuntua René Magritte margolari surrealistaren ‘Le Drapeau Noir’ (Bandera Beltza) izeneko koadroa da. 1937an margotua, Gernikako bonbardaketan oinarritzen dela uste dute adituek. Koadroak hegazkin futurista batzuk irudikatzen ditu zeruertzaren gainean. Zientzia-fikziozko film baten atrezzo gisa, hegazkin horiek gaur egun gure planeta inguratzen duten droneak eta sateliteak iragartzen dituztela dirudi. Pinturak une historiko honen funtsezko alderdi batean jartzen du arreta: abiazioaren aurrerapen teknologikoak nola betirako eraldatuko zuen gizakiok lurraldearekiko dugun harremana.

Jaiok eta van Gorkumek hiru dimentsioko modeloak egin dituzte hegazkin hauekin. Objektu hauek bideo batekin batera erakusten dira. Bideo honetan euskal paisaia menditsua kokaleku akustiko moduan erabiltzen dute artistek. Picassoren "Guernica"-n irudikatutako gorputzen zatiak zerrendatzen dituzten ahotsak entzuten dira, gerrako izugarrikeriak gogora ekarriz.

Jaio eta van Gorkumek Magritteren ‘Le Drapeau Noir’ pinturaren inkongruentziak eta anakronismoak berenganatzen dituzte. Beraien ustez, Magritteren koadroa kanon historikoaren desbideratze bat baita, non Picassoren ‘Guernica’-k toki nagusia hartzen



duen. Kanon historiko honen ertzetatik abiatzen dira Jaio eta van Gorkum. Magritteren makina hegalariai garraiobide gisa erabiltzen dituzte, eta horrela ezohiko hausnarketa bat egiten dute modernitateari buruz eta arteak memoria historikoaren irudimen kolektiboan jokatzeko duen paperari buruz.

Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum

Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumek bikote artistikoa osatzen dute 2001etik. Gaur egun Rotterdamen (Holanda) bizi eta lan egiten dute. Beren praktika arkeologia esperimentalarekin konpara daiteke. Dauden objektuen eta dokumentuen esanahi soziala aztertzen dute, horiek bereganatuz eta beste testuinguru batean erreproduzitzen.

Banakako eta taldeko erakusketa ugaritan parte hartu dute hainbat espaziotan, hala nola Gasteizko Artium Museoan; ADN Platform Bartzelonan; FRAC-Akitania Bordelen; MUSAC Leonen; Tabakalera Donostian; Kunsthalle Exnergasse Vienan; Fabra i Coats Bartzelonan; De Appel Amsterdamen; eta Konsthall C Stockholmen. Ekoizpen eta ikerketa artistikoko hainbat programatan parte hartu dute, hala nola "The Materiality of the Invisible" Maastrichteko Jan van Eyck akademian eta "Museo Bikoitza" Donostiako San Telmo Museoan.

ZABAL programaren beste emaitza batzuk

2019. urtean jarri zuen martxan Etxeparek ZABAL egitasmoa, sortzaileen, profesionalen, eragileen eta tokiko erakundeen arteko epe luzeko trukea eta lankidetzaz sustatzen eta errazten duten nazioarteko sareak garatzea helburu duena. Orduetik euskal artearen testuingurua ezagutzeko aukera izan dute nazioarteko ekimen garrantzitsuenetako batzuen komisarioek: São Pauloko biurtekokoak (2019 eta 2022an), Documenta Fifteenekoak (2020), Shanghaiko Biurtekokoak (2021 eta 2023), Veneziako Biurtekokoak (2022), Istanbulgo Biurtekokoak (2022), Art Jameel erakundeak (2022) eta Sydneyko Biurtekokoak (2023).



Ekimenak emandako fruituen artean daude [Consonni](#) argitaletxe eta kultur espazio independentearen parte hartzea Documenta Fifteen-en (2022) edo [June Cresporena](#) Veneziako Biurtekoan (2022). Berriki, '[Katalina Erauso, Moja Alferezaren erretratua](#)', Kutxa Fundazioaren bildumako obra, 2023ko São Pauloko Biurtekoaren erakusketaren parte izan da, eta [Jorge Oteiza eta Itziar Barrioren lanak](#) ikusgai daude une honetan Shanghaiko 14. Biurtekoan.

ZABAL programa aurrera eramateko, tokiko eta nazioarteko arte garaikidearen inguruko proiektuen kudeaketan lan egiten duen Artingeniumen laguntza teknikoa jasotzen du.

Info+

Mikel Lasa Iza
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus